

Txiki!tto

2016ko martxo

159 zbk.



**Julen Telleria
Gutagutarren
gidari**

Taxis Peak



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

Andereñok esaten du:

Gaur alkatea etorriko da. Limusinatik jaisten denean, txalo egin behar duzue, eskailerak igotzen ari denean "berriro, berriro" oihukatu behar duzue denok, eta klasera sartzen denean, "alkatea!" oihukatu behar duzue. Alkatea limusinatik jaisten da, kaka zapaltzen du eta ume guztiak txaloka hasten dira. Eskailerak igotzerakoan atzera jausi eta umeak "berriro, berriro". Klasera heltzen da, mutiko batek puzkerra bota du eta andereñok nor izan den galdetu duenean, umeak: "alkatea!".

Ekain Viciano



- Nahi al duzue txiste bat alderantziz
kontatzea? Ba hasi barre egiten.

Ane Irusta

Bus geltoki batean gizon bat
dago eta autobusa gelditzen denean
galdetzen dio gidariari:
- Zenbat balio du?
- Euro bat.
- Ba jaitsi denak, autobusa nirea da-
eta.

Mikel Martinez

- Zein da zaharrena,
zebra ala oiloa?
- Zebra, zuri-beltzean
dagoelako.

Eider Iturriarte



Sendagileak kontsultarako
hurrengo izena oihukatu eta eskeleto
bat agertzen zaio aurrean, eta esaten dio
sendagileak:

- Pixka bat lehenago etorri beharko zinateke,
ez?

Ander Nieto



Ume batek amari:

- Ama, badakizu zein den hitzik luzeena?
- Bai, noski, superkalifragilistikoespialidoso.
- Ez, arroz hitza da luzeena, "a"-rekin hasi eta "z"-z
amaitzen delako.

Enara Gordillo

JAJAJA

JAJAJA

- Zer esaten dio semaforo batek beste
bati? Ez begiratu, aldatzen ari naiz-eta!

Maidar Urizar




Irakasleak 12 urteko ikasle bati:

- Zenbat urte dituzu?
- 13, atzo urtebete zuen arraina jan
nuelako.

Miren Azpiri


Denborapasak

AURKITU 7 DESBERDINTASUNAK



AINHOA, PAULA, LAMIA ETA IKER

KOLOREZTATU marrazkia zenbaki bakoitzari dagokion kolorearekin



NAROA, GORKA ETA LEIRE

Lehiaketa




AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Intza Egia** izanda. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Eibarko Udalak emandako Coliseorako sarrerak eraman ditu Intzak etxera. Zorionak!



7 desberdintasunak




**BIDALI ERANTZUNAK APIRILAK 8 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena


Adina Tel.....

Denborapasak



LOTU ZENBAKIAK

IRAIA, ACHRAF, ARIANE ETA YASSER



LABIRINTOA

ARAITZ ETA RUBEN

Neskâ izân, mutilâ izân, guztiok gara berdinak, ez ahaztu!

“Itsaspeko bihotzak” izenburupean neska eta mutilen arteko berdintasuna lantzeko aukera dugu Eibarko liburutegian. 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dago; zuetako batzuk ikastetxeekin joango zarete, baina familian joateko aukera ere eskaintzen du. Haur literaturaz baliatuz, arte ederrak, diseinua, ikus-entzunezkoak eta antzerkiaren bitartez landuko dugu bertan berdintasuna. 5 txoko daude bertan:



Zer gara gu?: Panel batean haurren tamainako hiru gorputzen silueta dago. Gorputz horiek modu ezberdinetan jantziko ditugu.



Lanbideen mapa: Lanbide desberdinak egiteko gaitasuna guztiok dugula irudikatuko dugu. “Norak suhiltzaile izan nahi du” liburua ardatz hartuta, lanbideei buruzko elkarrizketatxo bat sortuko da.



Mundua eraikitzen: Etxeko lanak egitea denon ardura da, neska eta mutilena. Bestetik, bazkaria prestatzeak duen garrantzia autoak konpontzeak duenarekin pareka daiteke. Jolasak egingo dira.



Urazpian sentituz: Emozioak sentitzea neska zein mutilen kontua da. Mutiko baten istorioa kontatuko da. Mutiko horrek lotarako duen beldurra adierazten du, eta bere amonak, beldur horri aurre egiten lagunduko dio.



Anemonak eta harremanak: Bikote harremanak zein lagunen arteko harremanak elkartasunean eta errespetuan oinarritzen dira. Elkarri zaintzea, elkarri ulertzea... bezalako adibideen garrantzia azalduko da.



IZENA

JULEN

ABIZENA

TELLERIA

JAIOTERRIA

TOLOSA

JAIOTEGUNA

1990eko irailaren 28a

- Itsasoa ala mendia?

Itsasoa.

- Gozoa ala gazia?

Gazia.

- Ametsetako oporrak nora?

Konpainia onarekin, edonora.

- Kolore bat?

Beltza.

- Zenbaki bat?

23.

- Koadrila perfektuak nolako izan behar du?

Elkarrekin egon nahi duten lagunek osatutakoa.

- Jatekorik gustokoena?

Entsalada on bat.

- Gutxien gustatzen zaizuna?

Jatekorik ez izatea!

- Miresten duzun norbait?

Nire gurasoak.

- Nola dago mundua?

Beroegi.

- Ze 3 gauza eramango zenituzke irla desertu batera?

Anaia, neskalaguna eta koadrilakoren bat.

- Aurkezle ez bazina, zer izango zinateke?

Politikari.

- Birziklatzen duzu?

Dena.

- Euskara osasuntsu dago?

Euskara bera bai, euskal hiztunok aldiz...

- Zer egin bultzatzeko?

Besterik gabe, egin.

- Zerk haserretzen zaitu?

Denbora faltak.

- Zerk poztu?

Ostiral arratsaldeak.

- Abesti bat?

Gaur, Peiremansen Radiomaria; bihar beste bat.

- Nolako da zure egun perfektua?

Gosari on batekin hasi eta afari hobearrekin bukatzen dena.

- Irakurri duzun azken liburua?

Zaldieroaren De Rerum Natura 6.

- Txisteak kontatu ala entzun?

Dudarik gabe, kontatu.

- Eta opariak egin ala jaso?

Dudarik gabe, jaso.

- Nondik dator Gu ta Gutarrak saioaren arrakasta?

Oso sinplea da, gaztetxoei gustatu egiten zaiela.

- Gu ta Gutarrak ez den telebistako beste saio bat?

Azken boladan oso gustura ikusten dut Berandu Baina Lehen.

**JULEN
TELLERIA**

Betidanik izan ditu isilik egoteko arazoak. Akaso horregatik, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Leioan. Bizitza guztia perkusioa jotzen daraman arren, musikari izateko bidean dagoen musika-jalea da oraindik. Eta azken boladan oso tematuta dabil korri egitearekin. Gaztea irratian Akabo Bakea saioan jarduten du arratsaldero, anaia gaztea zaintzen. Telebistan, berriz, Gu Ta Gutarrak gobernatu nahian. Eta horrelaxe bizi da, zorientsu.



LA SALLE ISASI In San Blas eguna ospatu genuen otsailaren 3an, eta Aita Julio apaiz karmelita etorri zitzaigun opilak bedeinkatzera. Aratosteetan ere primeran pasatu genuen eta Hausterre Eguna ere ospatu genuen. HH eta LHko 1go eta 2. mailakoek eskolan bertan ospatu zuten eta 3. mailatik 6. mailara artekoek, berriz, San Pion, urteroko moduan.

Otsailaren 15etik 26ra **URKIZU** ikastetxeko 1go mailako ikasleek igeriketa-ikastaroa izan dute "Ipuruan". Otsailaren 29tik martxoaren 11ra arte bigarren mailako txanda izan zen. Bestalde, otsailean, Kooperazioa eta Hezkidetzaz bultzatzen duen kirol berri bat praktikatu dugu. Kirol berri horren izena COLPBOLA da, eta ikasleak oso gustora ibili dira. Martxoaren 8an, "Dena ez da futbola" filma ikusi zuten eta gai honen inguruko Unitate Didaktiko bat ere landu zuten.



ITURBURUKO 6. mailako neska-mutilak Sosola baserria ezagutzera joan ziren. Hain gertu izan arren, zein gutxi ezagutzen dugu baserri mundua!! Irteera horretan ikasleek baserriko lanetan jardun zuten gogo handiz. Hasieran denek egin zuten ogia eta laban egosi ere bai. Ondoren, batzuk gailetak

AMAÑA ikastetxeko lehen hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko ikasleek txangoa egin zuten, Donostiara, martxoaren hasieran. Goizean Eureka Zientzia Museoa bisitatu zuten eta bertan hainbat tailer egin zituzten. Bazkaldu ondoren Txuri Urdin izotz-pistara joan ziren patinatzerara. Nahiz eta ipurdiko batzuk hartu, primeran pasatu zuten!

egin zituzten eta beste batzuk, berriz, ardi eta bildotsak ikustera joan ziren. Bukatzeko, ardi-esnez eginiko gaztaren prozesua ere ikasi zuten. Esperientzia ederra bizi izan zuten Sosola baserrian, benetan, urtero egiteko modukoa. Mila esker Enrike eta Aizperei, gogo handiz aritu baitziren euren lanbidea erakusten.



ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxeko "patruila berdeak" Agenda 21eko ikasturteko plana azaldu ziguten otsailean. Aretoan elkartu ginen eta power-point, bideoak eta beren azalpenen bitartez jakinarazi ziguten aurtengo gaia




SAN ANDRES Ikastetxeko 2. mailakoak Arotz Eneara joan dira 3 egun pasatzera, eta oso ondo ibili dira elurretan. HHkoak eta 1. ziklokoak "Bularretik Mintzora" programan sartuta daude, Udaleko liburutegiaren laguntzarekin.

BIODIBERTSITATEA dela. Oso

interesgarria izan zen eta oso gustura egon ginen. Ea Eibarko biodibertsitatea hobetzen laguntzen dugun! HHkoak DIBERTSITATEA landu dute "Elmer" ipuinaren bidez. Pertsonen arteko berdintasuna eta desberdintasunari buruz hitz egin dute, eta Elmer elefantearen horma-irudiak egin dituzte teknika

desberdinak erabilia (tenpera, collagea). Oso politak gelditu dira. LHko 2. zikloko ikasleak Deba Goienera txangoa egin dute. Gatzaga inguruetan ibilbide bat egin eta Gatz Museoa bisitatu zuten.



ETXeko ARTISTA

BOTOIEZ EGINDAKO ONTZIA

MATERIALA

- ✓ Koloretako botoi zapalak
- ✓ Globo bat
- ✓ Kola zuri likidoa

PAUSOAK

- 1.- Puztu globoa eta jar ezazu edalontzi edo ontzi baten gainean. Horrela ez da mugituko eta lasai egingo dugu lan.
- 2.- Globoaren erdialdea kolaz igurtzi pintzel batekin. Utzi sikatzen pixka bat. Geruza hori

izango da gure ontziaren oinarria.

- 3.- Eman beste kola esku bat. Itsatsi botoiak bigarren geruza horren gainean, eta ondo sikatzen utzi.
- 4.- Emaiozu beste kola esku bat goiko aldetik eta utzi erabat sikatzen. Zuk uste duzun geruza guztiak eman.
- 5.- Artaziekin moztu globoaren korapiloa haizea atera dadin. Kendu globoa eta soberan dauden kola zati guztiak moztu. Hor duzue ontzi koloretsu polita!



Ti-ta!

Arbolak margotu

Tenpera-margoak eta plastikozko botilak. Besterik ez duzue behar arbola zoragarriak margotzeko. Lehenik eta behin arbolaren enborra margotuko dugu pintzelekin, marroi kolorean. Gero busti botilaren ipurdia nahi duzuen kolorearekin eta ti-ta! arbola zoragarria irtengo zaizue.




SUKALDARITZA txokoa



BARAZKI-TORTILLATXOAK

OSAGIAK

- ✓ 6 arrautza
- ✓ 100 gr ilar
- ✓ Perrexila
- ✓ 50 gr gazta parmesano
- ✓ 50 ml esne
- ✓ 100 gr azenario
- ✓ 80 gr york urdaiazpiko
- ✓ Olioa
- ✓ Gatza



PAUSOAK

- 1.- Moztu azenarioa zati txikietan eta ilarrekin batera irakiten dagoen ur gazitan sartu 2-3 minutuz. Ondoren zartaginetik pasako ditugu olio pixkatekin eta perrexila txiki-txiki eginda gehituko diogu.
- 2.- Arrautzak irabiatu ontzi batean, esnea eta gazta gehitu, ondo nahastu eta barazkiak bota bertara, gatz pixkatekin batera.
- 3.- Urdaiazpikoa gehitu eta ondo nahastu. Bihotz edo nahi duzuen itxurako moldetxoetan isuri nahasketa, 2 cm altuera hartu arte. Labean sartu 190 gradutan 20 minutuz.
- 4.- Kontuz atera eta tomate-entsaladaz lagunduta jan ditzakezue, epel daudenean.

KOKITOAK



Ti-ta!

100 gr koko birrindu jarri katilu batean. Esne kondentsatua bota eta nahastu koilara batekin. Neurri bereko bolatxoak egin eskuekin. Kokitoak ontzi batean jarri. Ontzi hori izozkailuan sartu 15 minutuz. 25 gr koko jarri plater batean eta izozkailutik atera ditugun kokitoak bertatik pasatu. Eta listo! Horra hor kokitoak! Ummm...

martxoko eta apirileko agenda

Martxoaren 8tik 20ra

Itsaspeko bihotzak. Genero-berdintasunaren gaia haur literaturaren bitartez lantzeko areto literarioa. Ikastetxeekin bisitak. Adostutako bisitez gain, modu librean ere ikusi ahal da erakusketa, eta, beraz, familiei zabaldua dago. Eibarko liburutegian.

Martxoak 19, zapatua

Lore Azoka Urkizun 09:00-14:00. Lore-erakusketa eta salmenta. 11:30ean tailerra: Lore-landaketa.




Apirilak 16, zapatua

“Spaceko Zarama” ikuskizuna Krego Martin Danza-ren eskutik Coliseo antzokian, 17:00etan. Sarreraren salmenta matxoaren 7tik aurrera-



Apirilak 23, zapatua

Aureo Dantza Konpainiaren ikuskizuna, Coliseo Antzokian 20:30ean.



horoskopoa

ARIES (martxoak 21-apirilak 20)

IKASKETAK: Azterketa sorpresa izango duzu... AMODIOA: Haserre batean beti! Horrela ezin da, e? OSASUNA: Zoragarri zaude, hori da zortea!!

TAURUS (apirilak 21-maiatzak 21)

IKASKETAK: Hasi apunteak bilatzen, beharko dituzu-eta. AMODIO: Opari bat egingo dizu... OSASUNA: San Blas opil larregi aurten...

GEMINIS (maiatzak 22-ekainak 21)

IKASKETAK: Liburua ez da etxean lagatzeko... AMODIOA: Loreak biltzen hasi... Ezustekoa emango diozu. OSASUNA: Amamaren bufanda ipini beharko duzu.

CANCER (ekainak 22-uztailak 22)

IKASKETAK: Zenbatgarren boligrafo urdina galdu duzu? AMODIO: Maite duzun pertsonari maite duzula esan. OSASUNA: Jaten duzuna gehiago zaindu, mesedez...

LEO (uztailak 23-abuztuak 23)

IKASKETA: Burua beste zerbaitetan jartzea komeni zaizu distraitzeko. AMODIOA: Lasai egon, nekea eta aspurgura laster pasatuko zaizkizu, zure begietako loretxo eder horrek keinua egitean! OSASUNA: Zakur-etzul hori... zaindu!!

VIRGO (abuztuak 24-irailak 23)

IKASKETA: Berri on bat jasoko duzu. AMODIOA: Zure azukre koxkorra zeure esanetara duzu adurra dariola! Aiiiiiii, zein poza!!!!!! OSASUNA: Ez jan hainbeste txokolate, kalte egiteaz gain komunera joateko arazoak ekarriko dizkizu.

LIBRA (irailak 24-urriak 23)

IKASKETA: Ikusi eta ikasi, eta ondo entzun! Abestiak dioen bezala. AMODIOA: Maite duzun pertsona gero eta gertuago dago eta ez zara konturatzen. OSASUNA: Kontuz okela jaten baduzu, okerreko zulotik joan dakizuke eta!!!

SCORPIUS (urriak 24-azaroak 22)

IKASKETA: Jarraitu ezazu horrela, txintxo txintxo lanean. Zu bai zu! AMODIOA: Ondoa duzun lagun batek mina du bihotzean, lagun iezaiozu. OSASUNA: Ken itzazu txima luze horiek begietatik, aurrekorik ere ez duzu ikusten-eta!

SAGITARIUS (azaroak 23- abenduak 2)

IKASKETA: Liburuak irakurtzeko dira, e? Ez hautsa hartzeko! AMODIOA: Norbait berezia ezagutuko duzu datozen egunotan. OSASUNA: Eztarriko minari aurre egiteko probatu ezitia limoiarekin.

CAPRICORNIUS (abenduak 22- urtarrilak 20)

IKASKETA: Koadernoak aurkeztu behar duzu, txukun baina!!! AMODIOA: Pozik egoteko moduko lagunak dituzu. Zaindu itzazu ondo. OSASUNA: Atsedena eta ondo jatea, hori da behar duzuna.

ACUARIUS (urtarrilak 21- otsailak 18)

IKASKETA: Animo! Horrenbeste saiatzeak ekarriko dizu-eta merezitako saria. AMODIOA: Triste? Zergaitik? Laster mimo karrukada jasoko duzu!! OSASUNA: Osasuntsu zaude, zorionekoa zu!

PISCIS (otsailak 19-martxoak 20)

IKASKETA: Emaizak onak dira, bai, baina egin duzun ahalegina da garrantzitsua. AMODIOA: Liluraturik zaude... amets batean... maiteminduta? OSASUNA: Salda beroak ondo egingo dizu.



TIRA, KAMILA, ESPABILA! (6-7 URTE)

Kamilak denbora asko behar zuen edozer egiteko. Presaka ibili behar izaten zuen beti: espabilatu behar jaikitzeko, espabilatu gosaltzeko, espabilatu eskolara garaiz iristekoak.



SENDAGAIA (8-10 URTE)

Ipuin hau Amur ibaiaren bestaldean dagoen lurralde batean gertatzen da. Hantxe dagoen lau teiltatu gorriko etxe dotore batean, non bi agure zahar bizi diren, ederki asko zaintzen zuten baratze baten alboan.



MEMORIAREN EHIZA (10-12 URTE)

Negua da eta elurra mara-mara ari du; Lur eta Ametsek kobazulotik irten ezinik egunak daramatzate. Gizon gehienak, berriz, ehizara joanak dira; klanari jatekoa amaitzen ari zaio. Halako batean, esku-hutsik itzuli dira ehiztariak, asko larriki zaurituak. Ezin izan dute errinozeroa harrapatu.



SABA ETA LANDARE MAGIKOA (6-8 URTE)

“Goizero bezala, eguna argitu zuenean, Abisiniako ahuntz basatiak hanka egin eta mendira alde egin zuen. Ez galdetu zergatik, baina goiz hartan, Sabak, anaiaren begiradapetik ihes egin, eta ahuntzaren atzetik joatea erabaki zuen...”. Kafearen deskubrimenduari buruzko kondaira eder batean oinarritutako komiki bikaina



MUTIKO DEABRUA (8-10 URTE)

Edonongoa izan daitekeen ikastolako neska-mutiko alaien eskutik, liburu honetan deabruak, banpiroak edo aingeruak bezalako izakien munduan sartuko gara. Mendiko aterpetxeek eta kobazuloek abentura zirrargarria bizitzeko moduko giroa izan dezaketela ikusiko dugu.



HAIZEA SAHATS ARTEAN (10-12 URTE)

Satorrak Apoari besotik heldu, kanpora eraman, zumezko eserleku batean eroso-eroso eserarazi, eta esan zion kontatzeko bere abenturak hasieratik bukaerara; eta Apoak, noski, gogo onez onartu zuen. Satorra entzule ona zen, eta Apoa, ez baitzegoen hark esandakoa zalantzan jarriko zuen edo asmo gaiztoz kritikatu zuen inor inguruan, lasai asko aritu zen.

bitxikeriak



Gereziendo baten uztatik 50 gerezi-tarta inguru egin daitezke, zuhaitz bakoitzak 800 gerezi inguru ematen ditu-eta.



Historian zehar takoidun zapatak gizonezkoek ere erabili izan dituzte. Pertiako zaldunek zaldiz ibiltzeko erabiltzen zituzten, eta XVIII. mendean, Europako nobleek aberastasun-ikur moduan janzten zituzten.



Haize-errotek erlojuaren orratzen kontrako norabidean biratzen dute, Irlandan izan ezik.



Antzinako egiptoarrek harriz egindako burkoarekin egiten zuten lo.



Milioika zuhaitz landatzen dira nahigabe munduan, urtxintxek lur azpian sartu eta bertan ahaztuta utzitako intxaurrei esker.



Gatzak 10.000 erabilera baino gehiago ditu



Krokodiloek ezin dute mingaina atera.



Errusian debekatuta dago zikina dagoen autoa gidatzea, batez ere matrikulan lokatza badute. Oso isun altuak jartzen dituzte.



Australiako wombat izeneko animalien gorotzek kubo-itxura dute!



Lagun onak izatea oso osasungarria da: estresa gutxitzen eta bizi-itxaropena luzatzen laguntzen digute!



Cleopatrak bidaiatzen zuen itsasontzietako belak perfumatu egiten zituzten, horrela, ur ertzerira iritsi aurretik usaintzen zuten erreginaren lurrina.



Azazkalak azkarrago hazten zaizkigu udan neguan baino.

AHIZPA BERRI BAT

Kaixo, ni Noa naiz, bidaiatzea betidanik asko maite duen neska bat. Gaur egun berezia da, gaur... Australiara noa! Brisbane izeneko hiri batera noa bi aste pasatzera. Ez ditut plan asko buruan. Ez dakit zer ikusiko dudana. Badakit nolakoa den hiria eta momentuan nahi dudana egingo dut. Gaztea naiz, baina oso arduratsua eta heldua. Dena ondo joango da.

Hegazkinetako bidaia bukaezina egin zait, 24h! Baina beno, bukatu da eta hotelean nago jada hurrengo goizean. Gaur hiria ikustera joateko gogoia dut, dendak ikusteko, Brisbane ondo aztertzeko eta beno, gauza famatu batzuk ikusteko.

Orain, dendetan nago, mota guztietako dendetan, eta pertsona interesgarri eta atsegin bat dirudien neska bat ikusi dut. Berarekin hitz egitea pentsatu dut, lagun australiar bat egiteko aukera ez da egunero aurkezten-eta. Lehenengotan oso urduri nengoen, zer pentsatuko zuen nitaz? Baina gero, hitz egiten eta hitz egiten, biak ondo eramaten hasi gara eta oso bizkor egin gara lagunak. Nerida deitzen da, nire adin bera du, eta oso-oso jatorra da.

Bi aste hauetan hiria

ezagutzen lagundu dit eta nik nire herri txikiari buruz hitz egin diot: Eibar. Eta, gure artean "ahizpak" deitzen

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...




gara, gutako inork ez duelako anai-arrebarik, gainera bera nire ahizpa bezalakoa da eta ni berea, ez gara banatu egun batean ere ez.

Beno, heldu da joateko eguna, pena handia ematen dit, Nerida eta ni bi herrialde desberdinetan egongo garelako. Maletak egiten bukatu dudanean, Nerida etorri da hotelera. Suposatu dut azkeneko agurra emateko, baina... nirekin Eibarrera datorrela esan dit! Oso pozik jarri naiz, zein ondo!

Eibarren gaude orain. Nik Eibar erakutsi diot, berak niri Brisbane bezala. Beno, oraingo "bisita gidatuan", horrela deitu ahal bazaio, askoz ere gutxiago iraun dugu, Eibar Brisbane baino askoz ere txikiagoa delako. Dena ondo joan da, baina hobetu egin daiteke! Neridari hainbeste gustatu zaio Eibar, hemen bizitzen geratu nahi duela. Nire etxean geldituko da eta noski, askotan joango gara Brisbanera bere familia bisitatzera. Eta horrela egin genuen biok, ahizpa berri bat.

Miren Elgezua



zu margolari!